

## Saharawiar Kanpamenduetara bisita

1. **Eathink proiektu** barruan eta Euskal Fondoak gonbidatuta Euskal Herriko zortzi bat ikastetxetako beste hainbeste irakasle joan ginen Saharawiar errefusiatu kanpamenduetara, kurtso hasieran 2018ko irailean. Olabide Ikastolako ordezkari moduan ni neu joan nintzen.

2. Hogei bat orduko bidaia luzearen ondoren Tindufeko **Saharawiar kanpamenduetara iritsi** ginen (Argelian). Tindufetik gure harrera etxea zegoen **Smarako** wilayara lehenik Argeliar ejerzitoak eta gero Sharawiarrek eskoltatu gintuen. Bertara soilik proiektuen bitartez sar zaitezke eta bertaratzen diren politikari, kooperante...ak eskoltaz mugitu behar dira. Gainera arratsaldeko zazpirak aldera ezin dugu etxetik bakarrik irten eta oso serio hartzen dute asuntua. Izan ere, 2013an bi kooperante espainiar harrapatu baizituzten yhadistek eta urtebeterarte ez zituzten askatu. Beldur dira Saharawiarrek horrelakoen erantzule egingo ote dituzten.

3. Kanpamentuak Argeliak Saharawiarrei utzitako **basamortuko eremuan** eraikiak daude. Ezer ez dagoen tokia eta lur erabat elkorrekoa. Dozenaka batzuk auntzak eta dromedarioren bat ere ikusten da tarteka, inoiz arropa zatiak jaten ikusi ditugu, besterik ezean. Adobezko etxeak eta haimak dira haien bizitokia eta giza laguntzaz bizi dira erabat. Ditutzen diru eta baliabideak oso osorik giza laguntzaz lortzen dituztenak dira. Laguntza hauetako batzuk instituzionalizatuak EH eta Aragoiren kasuan bezala eta besteak toki ezberdinetako giza laguntzarako elkarte bidez lortzen dituztenak. Gainera ez dute urik. Ura kamioien bidez ekartzen diete eta edukiontzi nola halakoetan gordetzen dute.

Bestalde, garraiorako Europatik eramandako ibilgailuak dituzte. Hauek konpontzen dituzte ahal dutenean eta bestela bertan edozein tokita botata uzten dituzte. Inguru osoa txatarrerria batean bihurtuta dago.

4. Honetara nola iritsi diren ulertzeko **historia** apur bat beharrezkoa da. Saharawiarren berezko lurraldea Mendebaldeko Sahara da. Hau espainiar kolonia bat zen eta Espainiarrek bertatik alde egitea erabaki zuten. Ondoren Marrokiarren 1976 martxa berdea izenekoarekin Mendebaldeko Sahara okupatu zuten eta espainiarrek beste aldera begiratu zuten.

Saharawiar gobernua orduan, Marrokoren probintzia izatea gonbidatu zuten eta horren aurrean Frente Polisarioak ezetza eman zuen. Marrokiarren errepresioa etorri zen eta hainbat hildako tarteka Saharawiar askok Argelia aldera ihes egin behar izan zuen. Saharawiar egitura politiko eta militar oso mantendu zuten eta borroka armatura jotzea erabaki zuen ejerzito Polisarioak. Hildako ugari eragin zituen hainbat urtetako gerraren ostean su etena sinatu zuten eta gaur egunerarte irauten du.

Bien bitartean Marrokok 2.400 kmko harresia eraiki zuen, munduko handiena eta Mendebaldeko Sahara bitan banatu zuten.

5. Saharawiarrek egun **hiru eremutan banatuta** daude. Batetik, Mendebaldeko Shara okupatua, harresitik kostaldera hedatzen den eremua. Bertan, 125.000 saharawiar inguru bizi dira. Bestetik, Mendebaldeko Sahara askea. Bertan, ejerzito Polisarioko 70.000 soldadu inguru bizi dira. Eta azkenik, Argeliako mugen barnean kokatzen diren Tindufeko Saharawiar kanpamentuak. Bertan, 190.000 saharawiar inguru bizi dira. Gainera, saharawiarrek badute diaspora nahikoa zabala; Cuban Argelen eta European; bereziki handia da EHkoa.

6. Su etena ez geroztik ez dira saharawiarren bizi baldintzak batere hobetu eta NBEk hainbatetan Marrokoren jarrera salatu duen arren, bere hortan dirau. Espainiak beste aldera begiratzen jarraitzen du eta hau aurpegiratzen diote Saharawiarrek. Hauetako hainbatek oraindik NAN espainiarra dute. Gainera, Marrokok mugak zainduko dizkion aitzakian, trukean esku ez sartzeko tratua dute eta Frantziak eta Espainiak ere interes ekonomiko handiak dituzte bertan. Izan ere, Mendebaldeko

Saharan **fosfatozko** munduko meategi handienak baitaude; Europa osoa ongarriztatzen dituztenak eta bestalde Mendebaldeko Sahararen kostaldeak **plataforma kontinental** zabala du (sakonera gutxiko itsasoa) eta korrante hotza, beraz arrantzatoki ezin hobea da.

**7.** Aipatu bezala, kanpamenduetan ezer gutxi dute eta guztia giza laguntzatik lortua baina **antolakuntza** bikaina dute. Ministeritza ezberdinetan banatuta dituzte ekinbide guztiak; Uraren ministeritza, Elikagaien Ministeritza, Osasun Ministeritza, Hezkuntza Ministeritza, Giza laguntza Ministeritza eta Kanpo harremanetarako Ministeritza. Honez gain Frente Polisarioko Ejerzitza ere badute. Saharawiarrek Afrika mailan **hezkuntza** mailarik onenetarikoa dute, analfabetismo tasa baxua, gazteek 18 urte arte ikasteko aukera dute kanpamenduetan eta hortik aurrera Unibertsitate mailako ikasketak egitera bekekin Argelera edo Cubara joaten dira. Beka hauek, argeliako Gobernuak eta Cubakoak ordaintzen dituzte eta ikasleek dituzte emaitzen arabera ematen dira. Gainera Cubak Irakasle eta Mediku zein Erizain brigadistak bidaltzen dituzte eta 3 urteko zerbitzuak egiten dituzte bertan, txandaka. Bestalde, material eta diru gehiena Europatik eta bereziki EHTik iristen zaie. Haien dioten bezala gu gara argeliar eta cubatarren ostean hirugarren onenak.

**8.** Bertan geunden bitartean hainbat Ministroekin elkarrizketatu ginen eta arlo ezberdinetako hainbat proiektu ikusi genituen. Hezkuntza maila, medio oso gutxiarekin ikasleek lortzen duten maila onaz jabetu ginen. Badirudi gutxi izateak mesede egiten digula batzutan. Bestalde, **hezkuntza bereziko gelak** bazituzten; Down sindromedunak, autistak, atzerapenak zituzten haurrak...ekin. **Ikasle ratioak** harritu ninduen. Sei ikasleko bi irakasle! Gainontzekoak gela arruntetan eta disziplina zorrotza zuten.

Gainera **batxilergoa** Simon de Bolibar Institutuan egin zezaketen eta **Goi ziklo batzuk** ere bazituzten; beharrekin lotuta; mekanikari zikloak (mutilentzat) eta erizaintzakoak (mutil eta neskentzat). Maila hauetan, internatuta bizi ziren garraioa ekiditeko eta neskek hauetako batzuk Ama ere badirenez, bertan beraiekin izaten zuten haurra ere.

Ikastetxe guztietan, jantokiak zituzten eta modu honetan garraioa ekiditeaz gain haurrak gutxienez bita jatea bermatzen dute.

**Herri liburutegiak** badituzte ere, bertan ikasleek ikasi ezezik edozein liburutegitan bezala batez ere arabieraz edo espainolezko liburuak irakurtzen dituzte. Beren arabierako dialektoa Hasania da.

Atentzioa deitu zidan ere hainbat umen guri euskaraz zuzentzea. Esaten ziguten EH udarako familiarekin ikasi zutela.

**Ikasi nahi ez dutenak** Mendebaldeko Saharako lurralde askera bidaltzen dituzte soldadu.

**9. Osasungintzan** medikuntza orokorrean botikak falta dituzten arren nahikoa ongi moldatzen dira. Hala ere, espezialitateko gaietan kanpora bidali behar izaten dituzte eta ez da beti posible izaten. Konjuntibitisa eta diabetesaz gain haurren desnutrizioa ere nahikoa arruntak dira. Diabetesa izatea ez da batere harrizkoa tearekin hartzen dute azukre pila ikusita.

**10. Argindarra** Argeliak oparitzen die. Instalazio elektrikoak desastrosoak dira eta bestalde, **Ura eta Elikagai** gehienak ere kanpotik ekartzen dituzte. Hala ere, nekazaritza hidroponikoan saiakerak egin dituzte eta baita piszikulturaren eta oilo granja bat ere bazuten.

**11. Garraioak** garrantzi handia du bertan distantziak handiak direlako. Atentzioa deitzen duen beste gauza bat da ere, gehienbat Toyota markako todoterrenoak eta Mercedes markako kotxeak ikusten direla. Basamortuko baldintzetan onenak omen dira. Hainbat gaztek tailerretan mekanikari lana ikasi behar izaten dute. Proiektu hauetako gehienak EHTik ordainduak eta EHTik bertatik ere egiten zaie jarraipena.

**12.** Emakumeen papera gizarteko egituretan beste arabiar herrialdeetan baino nabarmenagoa da. Familiek ez diete ikasteko arazorik jartzen eta erabakitzeke guneetan ere parte hartzen dute. Gu egon gineneko etxeko Amandrea Smara Wilayako Alkatesa zen. Gainera, emakumearen garapenerako erakundea ere badute. Hori bai, lan banaketa zorrotza dago. Etxean sukalde lanak, zaintza lanak eta tea emakumeek egiten dute eta gizonak igeltxero, mekanikari... Jende jatorra da oro har eta oso adeitsua. Duten gutxia eskeintzen digute.

**13.** Guraso eta ikasleei arazoaren berri emateko kanpaina abian jarriko dugu web orriaren bidez eta klasean hitzalditxoak emanez eta diru eta material bilketa ere egin nahi dugu. Olabide egunean ere elkartasun estandean Saharak ere izango du bere tokia.

**14.** Azkenik esan, udaran inork haurren bat ekarri nahiko balu <http://oporrakbakean.eus/es/> bertan baldintzak ikus ditzake eta izena eman ahal izango du.

**SAHARAWIAR HERRIAK MEREZI DU!**